

A1. maila

GIDA DIDAKTIKOA

Mailaren eskakizun orokorrak

Gaitasunak eta adierazleak (testuingurua, egoerak,)

Erreferentziazko Markoko ebaluazio atalean ageri den bezala, ikaslea hurrengoak egiteko gai izango da:

a) Idatziaren ulermena:

- Galdera-sorta bat ulertzeko (izena emateko, hotelean izena emateko) eta bere buruaz informazio nagusia emateko (izena, abizena, jaioteguna, herritartasuna)
- Egunero kalean aurkitzen ditugun ikurretan dauden hitzak eta esaldiak (adibidez, "geltokia" "aparkalekua" "ez aparkatu" ez erre" ulertzeko
- Postaleko mezu laburrak eta eguneroko egoeretan, lagunek edo lankideek idatzitako mezu errazak ulertzeko ("lauetarako itzuliko naiz") adibidez.

b) Ahozkoaren ulermena

- Entzundako mezu errazak ulertzeko, norbaitek oso astiro hitz egiten duenean, etenaldi luzeak eginez eta kontu handiz ahoskatuz.
- Astiro eta kontu handiz egindako galderak (nongoa den, norekin bizi...) eta argibideak, instrukzio labur eta errazak (jarri zutik!, etorri hona!) ulertzeko.
- Helbide errazak (nola joan leku batetik bestera, oinez edo garraio publikoaren bidez) eta zenbakiak, prezioak eta orduak ulertzeko.

c) Idazmena

- Berari buruzko galdera-sortak betetzeko (lanpostua, adina, helbidea, zaletasunak)
- Zorion-txartelak eta postal sinpleak idazteko (urtebetetze-txartela , edo oporretako agurrekin, adibidez)
- Berari buruzko perpausak eta esaldi errazak idazteko (non bizi den eta zer egiten duen, adibidez)
- Norbaiti oharra idazteko, non dagoen edo non elkartuko garen esanez.

d) Mintzamena eta elkarreragina

- Bere gauza pertsonaleko berri emateko (helbidea, telefono-zenbakia,
- Herritartasuna, adina, familia eta zaletasunak)
- Non bizi den deskribatzeko.
- Ulertzen ez duena esateko eta oso modu sinplean, norbaiti esan duena errepika dezan eskatzeko.
- Jendeari gauzak eskatzeko eta galdera sinpleak egiteko (non bizi diren, ezagutzen duten jendea, daukaten gauzak... eta abar)

d) Gaitasun linguistikoa

- Gaiari loturiko hiztegia erabiltzeko.
- Mailari dagozkion egiturak zuzen erabiltzeko. Egiten dituen akatsek ez dute ulermena oztopatzen.

Probaren egitura

Irakurmena

Irakurmena neurtzeko hiru edo lau irakur labur izanen dira: Gehienez proba osoaren %25 izanen dira eta gainditzeko ez da gutxienerako puntuaziorik izanen. Ariketak honakoak izan daitezke:

- A.- EGIA / GEZURRA motakoa.
- B.- AURKERA ANITZEKO GALDERAK motakoa.
- C.- GALDERA IREKIAK motakoa...

Probaren egitura

Idazmena

Idazmena neurtzeko bi testu labur izanen dira. Atal hau azterketa osoaren gutxienez % 25a izanen da , gainditzeko proba honen %50eko puntuazioa beharrezkoa da . 40-50 hitz inguruko bi testu izanen dira eta gaia **bere bizitzaren inguruko zerbait , familia, oporrak, lana...**

Entzumena

Entzumena neurtzeko hiru edo lau ariketa izanen dira, luzeraren arabera. Gehienez proba osoaren %25 izanen dira eta gainditzeko ez da gutxienerako puntuaziorik eskatuko Ariketak honakoak izan daitezke:

- A.- EGIA / GEZURRA motakoak.
- B.- AURKERA ANITZEKO GALDERAK motakoak.
- C.- GALDERA IREKIAK motakoak...

Irakurriaren ulermenean bezala, ulermen orokorra eta ulermen zehatza neurtzeko galderak izanen dira eta ondoko testu era hauetako bat izan daiteke: **iragarki bat, berri bat, garraioen inguruko informazioa, pertsona bati gertatutako bitxikeriaren bat, pertsona bati egindako elkarrizketa....**

Mintzamena

Atal honek hiru zati eta elkarrizketaren moduko mintzak izanen ditu 5-7 minutuan burutuko da eta gutxienez proba osoaren %25eko balioa izanen du. Gainditzeko proba honen %50eko puntuazioa beharrezkoa da.

1. **Elkarrizketa bideratua.** Irakasleak galdera batzuk egingen dizkio ikasleari: nor den, nongoa, zer ikasi duen, ordutegia, nola etortzen den... osotara hiru bat minutuz.
2. **Informazio.-trukea.** Irakasleak, emandako txartel, argazki, ohar...edozein euskarriren gainean, galderak prestatu beharko ditu gai bati buruz, beste ikasle bati egiteko eta elkarrizketa burutzeko. Ondoren, beste ikasleak formulatuko dizkion galderei erantzuna beharko die.
3. **Rol-jokoa.** Irakasleak proposatutako egoera baten aurrean, pertsonaia baten rola adoptatuko du.

Probaren atalak:

<p>Irakurriaren ulermena 3 edo 4 testu izanen dira (30m)</p>	<p>.Aukera anitzekoak .Erantzun librea .Hutsuneak bete . Egia- gezurra</p>	<p>%25</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Eguneroko bizitzari buruzko testu laburrak.(postalak, oharrak...) - Pertsona baten egunerokoa. - Gida turistiko baten oinarriko Informazioa (ordutegiak, prezioak...)
<p>Entzunaren ulermena 3 edo 4 grabazio laburrak (2 aldiz, Guztira 3 minutu)</p>	<p>Aukera anitzekoak Hutsuneak bete Lotu egoera eta irudiak Lotu elkarrizketak eta egoerak</p>	<p>%25</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Iragarki bat (ea zer iragartzen den...) - Berri bat (ordua...) - Garraioen inguruko informazioa (nondik nora, ordutegia....) - Pertsona bati gertatutako bitxikeriaren bat - Pertsona bati egindako elkarrizketaren datu batzuk
<p>Idazmena 2 zati izanen ditu (30 m)</p>	<p>1.-Testu laburra 2.- Testu luzeaEguneroko bizitzari buruzko esaldiak egin (40-50 hitz)</p>	<p>%25</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Bere bizitzaren inguruko zerbait - Hirugarren pertsona baten gaineko zerbait - Zerbaiten deskribapena(auzoa. etxea...) - Postal/gutun bat bidaltzea - Posta elektronikoko bati erantzutea
<p>Ahozko proba 3 zati izanen ditu. (5-7 m) (10 m 2. eta 3.zatiak prestatzeko)</p>	<p>1.- Elkarrizketa bideratua : nor zaren, nongoa... (1-2 minutu) 2.-Informazio-trukea (2 minutu) 3.- Rol-jokoa (2 minutu)</p>	<p>%25</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Izangaiak bere buruari buruzko aztertzailerek egindako galderei erantzun beharko die. - Txartelak ikusita, galderak formulatu beharko dizkio beste ikasleari, eta ondoren,honek egingo dizkion galderei erantzun beharko die,elkarrizketa laburrak burutuz. - Egoera baten aurrean , pertsonaia baten rola adoptatuko du

A1 maila

Ahozkoa zuzentzeko irizpideak

Adierazpen-maila . kalitatea :

Ikasleak gai izango da

Bere buruari buruzko galderei erantzuna emateko , baita besteei , familia, lana eta bitzitza arruntari buruzko galderak formulatzeko

- Non bizi den deskribatzeko
- Modu sinplean komunikatzeko, solaskidearen laguntzaz.

Behar duena eskuratzeko

- Jendeari gauzak eskatzeko eta emateko.
- Solaskideari errepikatzeko eskatzeko
- Esamolde errazak erabiltzen, denbora adierazteko “ hurrengo astean” “zazpitan” “gero”

Ahoskera

- Oro har, ongi ahoskatzen du, zenbait fonematan zailtasunak baditu ere (z/s, tz/ts/tx)
- Azentu eta doinuan erdal kutsua nabaritzen da, baina ez da oso nekosoia

Hitz jarioa

- Nolabaiteko erritmoa badu
- Etenaldiak ez dira luzeegiak

Zuzentasuna

- Deklinabidea eta aditz sistema: oinarrizko forma batzuk ongi erabiltzen ditu
- Akats gramatikalak onartuko dira sistematikoak ez badira,
- Aditz aspektua: **Etorri, etortzen, etorriko** bereizteko
- Aditz sistema minimo bat erabiltzeko: **naiz, dut, zait**

Lexikoa

- Eguneroko gai arruntei buruzko lexikoa erabiltzen du
- Gaztelaniazko hitz batzuk onartuko dira, batez ere oso arruntak ez badira

idazlanerako irizpideak

Adierazpen maila. Kalitatea

- **Informazioa emateko gaitasuna:** Berari buruzko galdera-sortak betetzeko (lanpostua, adina, helbidea, zaletasunak) gai den erakutsi behar du, baita zorion-txartelak eta postal sinpleak idazteko.
- **Oharrak idazteko** (non dagoen edo non elkartuko diren esanez) eta berari buruzko perpausak eta esaldi errazak idazteko gai dela frogatuko du.

Zuzentasuna

Aspektu hau baztertu gabe, lehenetasuna komunikatzeko ahalmenari emango zaio eta hauetako gutxi batzuk zuzen erabilia, nahiz eta akatsak agertu, aintzakotzat hartuko dira

- **Aditza.** Honako aspektuak menderatuko ditu:
 - *Aspektua* : etortzen, etorriko, etorri,
 - *Laguntzaile mota* : naiz, dut, zait.
- **Deklinabidea eta Sintaxia:**
 - Nor, nork, nori, non, nondik, nora, norekin...
 - Konpletiboak
 - Zehar galderak
 - Zehar agintera
 - Erlatiboa (erreferente gabea: **kalea garbitzen duena**)
 - Denborazkoak
 - Baldintza errealak
 - Konparatiboak
- **Lexikoa**

Gaiarekin lotutako hitzen egokitasuna kontuan hartuko da (akatsak onartzen badira ere)